



EAEko 16 eta 29 urte bitarteko langabezia-tasak puntu bat baino gutxiago egin du gora: %19,2an kokatu da 2011n

EAEko gazteen langabezia-tasa Espainiako gazteena baino askoz ere beherago dago


[Gazteen Euskal Behatokiak](#) langabeziari buruz aztertu dituen BJAko (Jarduera, lana eta langabezia) azken datuen arabera, EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa %19,2koa izan da 2011, 2010ekoa baino ia puntu bat handiagoa (%18,4). Langabezia-tasaren goranzko joera hau 2008ko krisiarekin hasi zen. 2008tik 2009ra ia 10 puntu (%7,3tik %16,5era) eta 2009tik 2010era ia bi puntu igo eta gero (%16,5etik %18,4ra), gorakadak baretze erlatiboa izan du 2010ean eta 2011n.




Bilakaera aztertuta, baieza daiteke 2011ko tasa duela hamar urtekoaren (2001) antzekoa dela. Gazteen langabezia-tasa hau EAEko biztanleria osoarena baino handiagoa da, oraindik ere; batzuetan, EAEko biztanleria osoaren tasaren ia halako bi izatera iritsi da.



2011n, gizon gazteen langabezia-tasa emakumeenaren gainetik egon da (%21,1 eta %17,2, hurrenez hurren). Joera hori 2007an hasi zen. 2011ko datuei dagokienez, deigarria da emakumeen langabezia-tasak gora egin izana 2010rekiko (%15,3tik %17,2ra) eta gizonenak, aldiz, bere horretan iraun izana (%21etik %21,1era).



EAE n bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko langabezia-tasak eta Estatu osokoenak konparatuz gero, badago alderik. Espainiako estatuan, 2011n, 16 eta 29 urte bitarteko langabezia-tasa %34,2koa izan da eta Euskadin %19,2koa. Nolanahi ere, gazteen langabezia-tasa hain da garaia, herri-administrazioek heldu beharreko arazo ekonomiko eta sozial nagusienetako bat bilakatu da.



Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

